

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### Udalak zenbait mugikortasun-neurri ezarri ditu konfinamendurako

*Helburua da urruntze sozialeko osasun neurriak errespetatu ahal izatea.*

Donostiako Udalak zenbait neurri hartzea erabaki du, oinezko eta bizikletazaleen mugikortasuna kalera irteten hasteko bidea ematen dien deseskaladaren hasierako faseak indarrean jarri ondoren ezarritako osasun-neurriak errespetatuz egin ahal izateko.

Horregatik, lehenengo fase batean, hiriko kale batzuk bizitegi-kale bihurtuko dira, oinezkoek, bizikletek eta autoek galtzada parteka dezaten (azken horiek 10 km/h-ko gehienezko zirkulazio-abiadurarekin).

Eduardo Chillida pasealekua eta Infanta Cristina, General Etxague eta Euskal Herria kaleak izango dira aldeketa horiek jasango dituztenak, nahiz eta Mugikortasun Saila erregulazio honekin bateragarriak diren leku gehiago aztertzen ari den.

Kale horiek behar bezala seinalaturik egonen dira, eta abiadura muga ere seinalatuko da, bide-markaren bidez. Seinaleztapen lanak egunez eginen dira, bide horiek jasan ohi duten trafiko dentsitate txikia dela eta.

Bigarren fase batean, Segundo Ispizua eta Bermingham kaleak ere bizitegi-kale bihurtuko dira, baina lan horiek gaez eta denborak uzten duenean egin beharko dira.

Intxaurren auzoan honako kale hauek ere aldatuko dira: Arroas, Jose Maria Busca Isusi, Telesforo Aranzadi, Bixenta Moguel, Galizia (Baratzategi eta Sibilía artean), Beltrán Pagola eta Pedro Axular .



Bestalde, eta bizikleta bidezko mugikortasunaren aldeko neurri gisa, Askatasunaren hiribideko erdibitzaileari erantsitako barneko erreik 30 errei gisa jarriko dira bi noranzkoetan, seinale bertikalen eta bide-marken bidez, txirindulariak segurtasunez ibil daitezten. Gainera, Kontxako bidegorriarekin eta Santa Katalinako zubiarekin lotuko dira, ekialde-mendebalde zirkulazioa errazteko.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **Ibilgailu motordunetarako mozketak**

Baterako existentziako neurri horiez gain, **maiatzaren 6tik aurrera**, astelehenetik igandera, **7:30etik 10:00etara eta 20:00etatik 21:30etara**, mozqueta hauek egingo dira:

#### **1) Eduardo Chillida pasealekua**

Adierazitako ordutegian moztuko da ibilgailu motordunen joan-etorria, zamalanak egin behar dituzten ibilgailuena eta pasealekuko 15. zenbakian dagoen garajera doazen ibilgailuena izan ezik. Ordutegi horretatik kanpo, pasealekua aldi berean egonen da eta gehienez ere 10 km/h-ko bide-marka izanen du.

#### **2) Pasealeku berria**

Ibilgailu motordunak aipatutako ordutegian itxiko dira, baimenduta dauden ibilgailuak izan ezik.

#### **3) Kontxako pasealekua**

Kontxako pasealekuko erreietako bat erresebatuko da Antiguoko tunelaren eta Mirakontxako pasealekuaren arteko bide-zatian, txirrindularientzat. Horrela, espaloian dauden txirrindulariek eta pertsonak egungo bidegorria erabili ahal izango dute.

Izan ere, Kontxako barandaren obrek bat egiten dute puntu horretan, eta, beraz, gainerako erreia ibilgailuen trafikorako eta garraio publikorako erabiltzea aztertzen ari dira. Ibilgailu motordunak Mirakontxa pasealekutik - Sanserreka - Pio Baroja pasealekutik desbideratuko dira.